

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2388

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 21ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinen bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzeko bideratutako laguntzetarako deialdia.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen; izan ere, lehen aldia izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituen, hartarako arrazoi bakarra gizaki izatea izanik.

Baina eskubideak aldarrikatzeari eta eskubide horiek egiaz ezarri eta bermatzeko borrokari dagokionez, orain dela gutxi arte ez gara jabetu beharrezkoa dela giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko lan sistematiko, koordinatu eta iraunkorra egitea.

Nazio Batuek bultzatutako eta Vienan 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia hartu behar da inflexio-puntutzat. Konferentzia horren azken deklarazioan eta ekintza-programan zehatz-mehatz bildu zen giza eskubideei buruzko hezkuntza, gaikuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmonia-tsua ezarri eta sustatzeko, baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere.

Vienako Konferentziaren ondorioz, NBEren Batzar Nagusiak, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenean, Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada izendatu zuen 1995-2004 aldia. Giza eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadarekin hasitako lan eskerga horrek ez zuen denbora-mugarik ezarri nahi. Aitzitik, nazioarteko komunitatea mugiarazi nahi zuen, oinarri sendoak ezartzeko eta oinarri horien gainean etengabe eta iraunkortasunez aurrera egiteko. Horregatik, hamarkada amaitzean eta programaren emaitzak ebaluatu ondoren, egun indarrean dagoen jardun-programa berri jarri zen abian. 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, NBEren Batzar Nagusiak Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Mundu Programa aldarrikatu zuen. Programa 2005eko urtarrilaren 1ean gauzatzen hasi zen, eta ondoz ondoko zenbait etapatan egituratu da, giza eskubideen esferako hezkuntza-programak sektore guztietan gauza daitezela sustatzeko.

Bestalde, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan, Euskadin garrantzi handia dauka toki-mailan egindako lanak. Horregatik, gobernu honen lehentasunetariko bat da udal-ekin-tzak bultzatzea, bakea sendotu eta bizikidetzera eraikitzeko.

2013ko irailaren 24ko 415/2013 Dekretuak (2013ko irailaren 30eko EHAA) memoria historikoaren berreskurapena, bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak jorratzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak arautzen ditu, eta, 2.1 artikuluan, ezartzen du diru-laguntzok jasotzeko deialdia urtero egingo dela, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpenaren bidez, zeinaren bidez 2014ko laguntzetarako deialdia iragartzen baita.

Orobat, 187/2013 Dekretuaren 20.3. artikuluari jarraikiz, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak egin behar du bere eskumen-arloko diru-laguntzen deialdia (Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du aipatu dekretuak).

Hori guztia kontuan izanda, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta toki-erakundeek giza esku-bideen, bakearen eta bizikidetzaren arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak laguntzeko bideratutako diru-laguntzen 2014ko deialdia iragartzea, norgehiagoka-araubidearen arabera.

2. artikulua.– Denbora-eremua.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, proiektuak 2014ko ekitaldian garatu beharko dira, eta, betiere, abenduaren 31n amaituta egon beharko dute.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango dira bideratutako proiektuak sustatzea, zabaltzea eta gaitzea bakearen, elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan, 1. artikuluan adierazi gisan, honako hauek, besteak beste: kongresuak, sinposioak, jardunaldiak, seminarioak eta aldi baterako erakusketak antolatzea, ikus-entzunezko produktuak, argitalpenak, hezkuntza-proiektuak, ikerketak eta dibulgazio-kanpainak.

4. artikulua.– Eskatzaileak.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek eskatu ahal izango dituzte laguntza hauek.

5. artikulua.– Diru-hornidura.

Diru-laguntzen programa honetara hirurehun mila euro bideratu dira (300.000) , Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 2014ko ekitaldirako aurreikusitako partidaren kargura.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa eta presentziala.

1.– Prozedura honen izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko, udalek eta gainerako toki-erakunde interesdunek bide elektronikoak erabil ditzakete.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gairontzeko ereduak modu presentzian nahiz elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak, euskadi.net-eko egoitza elektronikoki honetan eskura daitezke: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/municipios-paz-convivencia-derechos-humanos/

3.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeraturako bidea.

Eskabidea egin ondorengo izapideak, bide elektronikoa aukeratuz gero, helbide honetan egingo dira:<http://www.http://www.euskadi.net/misgestiones>

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskabidea Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Bake eta Bizikidetzako Idazkaritza Orokorreko Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariari zuzenduko zaio (Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak aurrez aurre aurkeztu nahi izanez gero, leku hauetara eraman daitezke: Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzara (Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz); Herri-tarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) bulegoetara; lurralde-ordezkaritzetara; bestelako erakunde laguntzaileetara. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua ezarritako bideak ere erabil daitezke.

Orobat, bide elektronikoaren bitartez ere aurkeztu daitezke eskabideak, euskadi.net-eko egoitza elektronikoan sartuta.

8. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabidea, erantzukizunezko adierazpenak jasotzen dituen, inprimaki arautuan egin beharko da, zeina euskadi.net egoitza elektronikoan ere eskuragarri baitago.

Eskaerarekin batera honako dokumentazio aurkeztuko da:

a) Eskabidea sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzeko, udaleko edo toki-erakunde idazkariak emandako ziurtagiria.

b) Proiektuaren edo programaren memoria xehea, non zehaztuko baitira: xedea, metodologia, balizko hartzailak (sexuaren arabera bereiziak), lurralde-eremua, egingo diren jardueren egutegia eta genero-ikuspegiari nola helduko zaion. Memorian egiaztatuko da eskatzaileak proiektuari dagokion arloan duen esperientzia. (II. eranskina).

c) Proiektua gauzatzeak eragingo duen kostuaren aurrekontua, partiden arabera banakatua. Bertan, proiektua finantzatzeko gainerako bideak, baleude, zehaztuko dira eta, bestela, proiektua finantzatzeko berezko nahiz kanpoko beste baliabiderik ez dagoela dioen zinpeko aitortpena egin behar da. (III. eranskina).

d) Diru-laguntzaren helburu den programa edo proiekturako eskatutako gainerako laguntzen zerrenda; bertan, zein administrazio publikori edo erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaion laguntza zehaztu beharko da, bai eta laguntza horiek ukatu edo eman diren edota oraindik ebatzi gabe dauden eta horien zenbatekoak ere. Halakorik ez bada, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programa edo proiektuetarako beste laguntzarik jaso ez izanari buruzko zinpeko deklarazioa. (III. eranskina).

e) Erakunde eskatzaileak programa edo proiektua gauzatzeko dituen baliabide materialen eta giza baliabideen adierazpena. Horretaz gain, honakoak ere adierazi beharko dira: alde batetik, erakundeak ba ote duen berdintasunaren alorrean trebatuta dagoen edota ibilbidea duen pertsonarik, eta, bestetik, boluntario gisa jarduten duten pertsonen kopurua. Programa edo proiektuan inolako ordainsaririk gabe parte hartzen dutenak joko dira boluntariorzat. (II. eranskina).

9. artikulua.– Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahai kalifikatzeko kideak hauek izango dira, 2013ko irailaren 24ko 415/2013 Dekretuaren 10. artikuluan ezarri bezala:

- Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, lehendakaria.
- M.^a Begoña Garamendi Ibarra andrea, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, bokala.
- Jon Redondo Lertxundi jauna, Gazteria eta Kiroletako zuzendaria, bokala.
- Lide Amilibia Bergaretxe Andrea, Gizarte Gaietako zuzendaria, bokala.

– Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria, bokala.

– Ana Alberdi Zubia andrea, Emakundeko idazkari nagusia, bokala.

– Laura Sagastizabal Errazu andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria, idazkaria.

10. artikulua.– Balorazio- eta hautaketa-irizpideak.

Diru-laguntzak lehiaketa bidez eman edo ukatuko dira, eta, horretarako, irizpide ponderatu hauek hartuko dira kontuan:

1.– Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. 20 puntu, gehienez.

2.– Kudeaketa-gaitasuna, proposatutako proiektuari dagokionez. 10 puntu, gehienez.

3.– Proiektuaren potentzial estrategikoa, haren egokitasuna, interes soziala eta izan ditzakeen hartzailleak. 20 puntu, gehienez.

4.– Erakunde eskatzailearen ibilbidea. 10 puntu, gehienez.

5.– Noraino koordinatu den hezkuntza-arloarekin eta elkarte-sarearekin, edo administrazio publikoren bat noraino sartu den proiektuaren garapenean. 10 puntu, gehienez.

6.– Aurrekontu argia eta egokia. 10 puntu, gehienez.

7.– Giza Eskubideen gaineko nazioarteko erakundeen esku-hartze ildo, estrategia eta helburuak noraino hartu diren kontuan eta noraino jokatu den haiekiko koherentziaz; batez ere, Nazio Batuen Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoak hartutakoekin (www.ohchr.org): 10 puntu, gehienez.

8.– Genero-ikuspegiaren trataera, garatu beharreko proiektuetan. 10 puntu, gehienez.

Diru-laguntza emateko beharrezkoa izango da, aurreko baremoei jarraikiz, gutxienez 45 puntu lortzea.

Gehienez hogeita bost mila euroekin lagundu ahal izango da proiektu bakoitzeko (25.000).

11. artikulua.– Ordaintzeko modua.

1.– Deialdi honen babesean ematen den diru-laguntza gisa honetan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketan, emandako diru-laguntzaren % 75 ordainduko da, diru-laguntza berariaz onartu eta gero, edo ematen dela jakinarazten denetik hamar eguneko epean, berariazko uko-egiterik ez bada aurkezten.

b) Bigarren ordainketan, emandako diru-laguntzaren erabilera Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari justifikatu eta gero egindako likidazioaren ondoriozko zenbatekoa ordainduko da, hurrengo artikuluan zehazten den bezala.

2.– Emandako diru-laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunek hirugarrenen alta hartzeko agiria aurkeztu beharko dute, baldin eta erregistraturik ez badaude edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi badituzte.

12. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2015eko martxoaren 31n bukatuko da. Agiri horietan, IV. eranskineko edukiaz gainera, honako hauek zehaztuko dira:

1.– Diruz lagundutako proiektua gauzatzean egindako gastuak justifikatzeko fakturak eta ordainagiriak, originalak edo kopia konpultsatuak. Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztu behar dira, behar bezala ordenatuta eta zenbakituta, eta zerrenda batean adierazita dokumentu bakoitzean adierazitako gastua zertarako egin den (fakturrek bat etorri beharko dute Fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen araudia onartzen duen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuko 6. artikulua ezartzen dituen eskakizun formalekin).

2.– Soldaten ordainagiri originalak edo kopia konpultsatuak, eredu ofizialari egokituak, eta Gizarte Segurantzarako kotizazioen buletin ofizialak, lan-kontratudun langileen gastuak justifikatzeko.

3.– Aldi baterako kolaborazioen gastuen ordainagirien kopia konpultsatuak, berriz, hartzailearen datuak zehaztuko dira, baita haren Nortasun Agiri Nazionalaren –NAN– zenbakia, ordaindutako lana, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren –PFEZ– atxikipena ere.

4.– Diruz lagundutako proiektuaren memoria xehea, besteak beste pertsona onuradunak (sexuaren arabera bereziak) aipatuz eta genero-ikuspegiaren trataera azalduz.

5.– Programen, iragarki-kartelen, argazkien eta argitaratutako gainerako material grafiko, idatzi edo soinuzkoen aleak.

6.– Izapidetzea bide telematikoz egiten bada, eskaneaturik eta elektronikoki sinatuta aurkeztuko da aipatu dokumentazioa.

7.– Izapideketek presentzialean zein telematikoan, Administrazioak, egoki baderitza, agiria originalak eska daitezke.

Bide presentzialetik zein elektronikotik justifikazioak izapidetzeari buruzko zehaztapenak eskura dira helbide elektronikoa honetan: euskadi.net

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Orokorrean, hila-beteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 21a.

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria,
MÓNICA HERNANDO PORRES.

2014ko maiatzaren 30a, ostirala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Eskabidea

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEK ETA GAINERAKO TOKI-ERAKUNDEEK BAKEAN ETA GIZA ESKIBIDEETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZAREN ALORREAN GARATUTAKO PROGRAMAK ETA EKIMENAK DIRUZ-LAGUNTZEKO ESKABIDEA

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

Titularra Ordezkaría

Datu pertsonalak

Titularra

Erakundearen izena *

Telefonoa

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

Ordezkaría

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea

Helbide elektronikoa:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

Posta bidezkoa

Helbidea *:

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerría *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko¹ lege-debekuen eraginpean.
 - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

2014ko maiatzaren 30a, ostirala

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultazeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

+ Dokumentu berria gehitu

_____ (Tokia) (e)n _____ (Data) (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpenera sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

II. ERANSKINA - PROIEKTUAREN MEMORIA

Izartxo(*) daramaten datuak derrigerrozkoak dira

Programaren datuak

Diru-laguntza zein programatarako eskatzen den (programaren izena):

Programaren hartzaile izan daitezkeenak:*

Programaren gutxi gora-beherako hartzaile-kopurua (sexuen arabera banatuta): *

Gizonak: _____ Emakumeak _____

Lurralde-esparrua: * _____

Programaren helburua: *

Programaren metodologia: *

2014ko maiatzaren 30a, ostirala

Egin beharreko jardueren egutegia

Jarduera	Data	Modua

+ Lerro Berria Gehitu**Giza baliabideak****Prestakuntza****Parte-hartzailea:****Esperientzia:****Parte-hartzearen maila:****Berdintasun-arloko prestakuntza:****Boluntarioa/Elkartea** _____**Bere erakundearen izena** (*erakunde eskatzailekoa ez den elkarteren batekoa izatekotan bete behar da*):**+ Parte-hartzailea gehitu****Baliabide materialak****Erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko dauzkan baliabide materialak:**

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

2014ko maiatzaren 30a, ostirala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

III. ERANKINA PROIEKTUAREN AURREKONTUA

Izartxoa (*) daramaten datuak derrigorrezkoak dira

Proiektuaren izena: * _____

Eskatutako zenbatekoa _____ euro

Gastuak		Sarrerak	
Langile-gastuak		Erakunde eskatzaileaten ekarpena	
Funtzionamendu-gastuak		Erakunde publikoen ekarpena	
Bestelako gastuak		Erakunde pribatuen ekarpenak	
		Bestelako sarrerak	
Gastuak guztira		Sarrerak guztira	

+ Lerro Berria Gehitu

Defizita: _____ euro

Bestelako finantzaketa-iturriak

Baduzu bestelako finantzaketa-biderik	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

+ Lerro Berria Gehitu

Bestelako laguntzarik eskatu al duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein erankuderi?	Eskatutako zenbatekoa	
Guztira		

+ Lerro Berria Gehitu

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos HumanosIV. ERANSKINA -
JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Programaren datuak

Programaren izena: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen kolektiboa: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen emakume-kopuru balioetsia: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen gizon-kopuru balioetsia: _____

Egindako jardueren laburpena:

Proiektuaren betearazpenean parte hartu duten pertsonak

Prestakuntza:

Parte-hartzailea

Esperientzia:

Parte-hartzearen maila:

Berdintasun-arloko prestakuntza:

Boluntario/Elkartea _____

Bere erakundearen izena (erakunde eskatzailekoa ez den elkarteren batekoa izatekotan bete behar da):

+ Parte-hartzailea gehitu

Fakturak. Nominak. Proiektuari egotzitako aldi bateko lankidetzak**EGOTZITAKO ALDI BATERAKO LANKIDETZA**

NANa	Zein kontzepturengatik ordaintzen zaion	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) dela-eta dagokion atxikipena

+ Lerro Berria Gehitu**FAKTURAK ETA NOMINAK**

Dokumentu-mota	Data	Zenbatekoa	Zenbakia	Zertarakoa

+ Lerro Berria Gehitu**Betearazpenean erabilitako baliabide materialak:**

--

Genero-ikuspegia sartzeko modua:

--

Proiektuaren betearazpenean egindako materiala

Programak
 Kartel iragarleak
 Argazkiak
 Bestelakoak _____

Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztu behar dira, behar bezala ordenatuta eta zenbakituta, eta zerrenda batean adierazita dokumentu bakoitzean adierazitako gastua zertarako egin den. Fakturek bat etorri beharko dute Fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen araudia onartzen duen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuko 6. artikulua ezartzen dituen eskakizun formalekin.

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)